

DONOSTIA KULTURAK Memoria aurkezten du 2011ko Jarduerak eta Emaitzak

Donostiako kultur eta jai-eskaintzaren eragile gisa, Donostia Kulturak oso urte bizia izan zuen 2011. Izan ere, martxoan [San Telmo Museoa](#) ireki zenean eta urtearen azken aldera [Kultur Etxea Intxaurrondon](#), bi ekipamendu gehiago izan zituen udal erakunde honek kultura esparru guztietan kudeatu eta sustatzeko.

Aipamen berezia merezi du [2016an Donostia Europako Kultur Hiriburu](#) izatea lortu izanak. Ekainaren 28an iragarri zen, eta oniritzi handi baten adierazpena izan zen hori hiriaren kultur jardueraren alde, bai eta erronka handi bat ere, datozen urteetako ibilbidea markatuko duena.

Krisia alde batera utzi gabe —atal eta arlo guzti-guztien azterketetan aipatzen da—, Donostia Kulturak bere kopururik handienak iritsi zituen 2011n: **milioi bat erabiltzaile baino gehiago** izan zituen zerbitzu-egitura nagusietan, hau da, kultur etxeetan eta hiriko liburutegi-sarean.

SAN TELMO MUSEOA

Hiriko ekipamendu nagusietako batetik hasiko gara: San Telmo Museotik.

Martxoaren 28an ireki zituen berriro ateak; bi egunetan izan zituen "ateak zabalik" eta 20.000 lagun baino gehiago bertaratu ziren. Guztira, **134.997 lagunek bisitatu zuten San Telmo 2011n**, batez ere museoa eta erakusketak ikusteko (% 77,7), baina baita Museoko aretoetan egin ziren jarduera ugari eta askotarikoetan parte hartzeko ere (% 22,3). Jatorriari dagokionez, kopuru horren erdia donostiarrek eta Euskal Herriko beste alde batzuetakoak izan ziren, eta beste erdia kanpotarrak.

Edukien aldetik, aldikako **erakusketak** nabarmenduko genituzke; 83.875 bisitari erakarri zituzten 2011. Nagusia, eta inauguraziorako eratu zena, *6 Mil Millones de otros* izan zen; ondotik, *Federico Fellini, el circo de las ilusiones*. Laborategi-aretoan edo kafetegian ere izan ziren beste erakusketa batzuk: *(FAB) Bots*, *La Aventura de la prehistoria* eta *Mercados del Mundo*.

Aipatzekoa, halaber, erakunde eta kultur eragileekin sortutako **harreman-sare** zabala, Museoan jarduera multidiziplinarioak egiteko.

Urgulleko kulturguneari dagokionez, berriz, Motako Gazteluko erakusketa, Donostiaren historiari buruz, nahitaezko bisita bihurtu da turistentzat, eta bisitari-kopuru handia lortu zuen berriz ere: **119.719 bisita 2011n**.

KULTUR EKINTZA

Donostiako zortzi auzotan dauden hamar kultur etxeek, Udalak kultura hurbiltzeko eta parte-hartzea bultzatzeko duen estrategia bideratze aldera, **Intxaurrondo Kultur Etxea** irekitzea izan zuten berritasun nagusia (2011ko abenduan); horrez gainera, Aietekoak, urtebete lehenago ireki ondoren, oso datu onak izan zituen, sendotuz joan den seinale.


Programazioari dagokionez, berriz, kultur etxe bakoitzak bere espezialitatean jarraitu zuen lanean, baina zeharkako programak ere garatu ziren, hala nola **San Miguel Donostikluba** musika-zirkuitua (**51 kontzertu** eta **11.000 lagun**), **Musika Parkean** (**2.500 lagunek** parte hartu zuten musika-pikniketan Aiete, Loiola, Cristina Enea, Miramar eta Urgulleko parkeetan), eta **Hiriaren Oroimena**, 2011n Loiolan eta Amaran egindako egitasmoa.

Aipamen berezia merezi dute lehendik datozen bi jaialdik: **Poltsiko Antzerkiaren Jaialdia**, non **2.000 lagun** baino gehiagok hartu baitzuten parte formatu txikiko 24 emanalditan, eta **Literaktum** literatura-jaialdia, VII. edizioan web-orria estreinatu eta egoitza gehiago izan zituena: San Telmo Museoa, Victoria Eugenia Antzokiko Klub Aretoa, eta Zumaiako Zuloaga Museoa.

Gainera, beste berritasun bat, euskarazko poltsiko antzerkiaren ekoizpenari bultzada emateko: euskarazko sorkuntza-egitasmoen lehen deialdia egin zen, **Poltsiko Antzerki Sorkuntza**.

Guztira, **174.414** lagunek parte hartu zuten kultur etxeek programaturiko jardueretan, eta **1.149.038** lagunek erabili zituzten zerbitzuak: liburutegia, **Haurtxokoa**, **Gaztelekua**, **Plus 55**, ikasteko gelak, KZgunea, eta abar. Kultur etxeka, hauek nabarmendu ziren: Okendo, Gros auzoan, **242.441 bisitari**; Ernest Lluch, Amaran, **225.328 bisitari**; Egia, **152.517 bisitari**; eta Casares-Tomasene, Altzan, **138.960 bisitari**.

Okendo	242.441
Ernest Lluch	225.328
Egia	157.054
Casares-Tomasene	138.960
Aiete	117.614
Lugaritz	106.456
Larratxo	56.651
Intxaurren Berri	39.309
Loiola	36.511
Larrotxene	28.714
TOTAL	1.149.038



Eta beste datu garrantzitsu bat: **7.708 lagunek** parte hartu zuten Kultur Ekintzak antolaturiko **ikastaroren** batean, gehienek ikasturte osoan; horrek esan nahi du jende hori etengabe ibili zela kultur etxeetan.

FESTAK

Tradizio bihurtzen ari da: hirugarren urtez jarraian, Festak unitateak liburu bat argitaratu zuen, *50 años en compañía*, **Haur Danborradaren** 50. urteurrenaren oroigarri. Ospakizun horrek eta Errege Magoen desfileak eman zioten hasiera urteari; partaide gehiago bilduko zituen urteari. **San Sebastian egunean, 111 izan ziren helduen danborradak. Kaldereroen eta Artzai eta Inudeen** ondoren, 5.375 donostiar eta 29 konpartsa ibili ziren **Inauterietan**.

Berritasun bat: San Joan bezperan, Udalbatza berriak **Soka Dantzan** parte hartzeko tradizioari heldu zion berriz, Konstituzio Plazan. Eta Aste Nagusian, ohiko **Abordaiaren** ondoren, zeinetan 500 baltsak hartu baitzuten parte, **milioi bat lagun inguru** bildu zen Saguesen gaueko kontzertuetan. **Su Festen Nazioarteko 48. Jaialdiari** dagokionez, piromusikal baten bidez eman zion amaiera **Aste Nagusiari**, herritarren parte hartzea eskertzeko, haien bidez lortu baita Donostia Europako Kultur Hiriburu izatea 2016an.

Donostiako Euskal Jaiak eta **Estropadak**, irailean; **Santo Tomas, 197** posturekin, eta, urtea amaitzeko, **Olentzero** berezi bat, 2011n Urgull menditik jaitsi baitzen, eta, lehen aldiz, Mari Domingik lagunduta.

LIBURUTEGIAK

1.041.046 bisita izan zituen [Liburutegien udal sareak](#), eta **558.229 mailegu** (hau da, aurreko urtean baino % 6,86 gehiago). Horrek esan nahi du **batez beste 3.424 lagunek erabili zituztela liburutegietako zerbitzuak** eguneko, eta 3,01 mailegu egin zirela liburutegietan urtean herritar bakoitzeko.

Donostiako liburutegiek, gainera, **698 jarduera** egin zituzten, eta 14.725 herritarrek hartu zuten parte; nabarmentzekoa sarea hazi egin zela neurri fisiko ere, 982 metro koadro gehiago, Intxaurren Berriko liburutegia kokatu baitzen Intxaurren Berri Kultur Etxe inauguratu berrian.

ARTE ESZENIKOAK

Arte Eszenikoetan, azpimarratzekoa eskola antzerkiko beste egitasmo bat jarri zela martxan, [Eskolatik Antzerkira](#) izenekoa, txikienen artean arte eszenikoak sustatzeko xedez, ikastetxeen laguntzarekin. **4.000 ikasle** baino gehiago pasatu ziren bertatik, eta ondoren ikastegietan landu zuten antzerkian ikusitakoa. Urte horretan, halaber, San Petersburgoko **Eiffman Balletak** eta **Alicia Amatriainek** egin zuten dantzan Donostian; antzerkian, berriz, **El mercader de Venecia**, **Tricicle** eta **Contra el viento del Norte** ikusi ahal izan ziren. Donostia Kulturaren lau antzokiek (Victoria Eugenia, Antzoki Zaharra, Gazteszena eta Imanol Lartzabal) **350 funtzio** programatu zituzten guztira, antzerkia eta dantza, eta **85.000 ikusle** baino gehiago bildu zituzten.

Euskarazko antzerki-lanentzako saririk garrantzitsuenak, [Donostia Antzerki Saria](#), **Errautsak**entzat izan zen.

Jaialdiei dagokienez, [dFERIA 2011](#)k **4.300 ikusle** bildu zituen eskainitako 20 ikuskizunetan, eta beste **2.700 lagunek** parte hartu zuten jarduera paraleloetan. **Akreditaturiko 246 profesionalak** ere ezinbestekoak izan ziren feriaren helburu nagusiak lortzeko: Euskal Herriko arte-produkzioaren erakusleihu izatea kanpora begira; lortu zituzten kontratuek 7,5 aldiz handitu dute dFERIA antolatzeko erabilitako aurrekontua.

Azkenik, esan behar da **BALLET T** (Mugaz haraindiko Zentro Koreografikoa) sendotu egin zela eta beste urtebetez ere ikuskizun berri bat ekoitzi duela **Malandain Ballet Biarritzekin**. Oraingoan **Lucifer** izan zen.

ZINEA

François Truffaut eta **Federico Fellini** izan ziren 2011ko protagonistak zineari dagokionez, biei eskaini baitzitzaizkien urteko bi [Nosferatu](#) zikloak. [Giza Eskubideen Zinemaldiak](#), [Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Asteak](#) eta [Amstel Surfilm Festibalak](#) ere bete zuten helburua: gaikako zinemari mailarik onenean eustea urte osoan. 2011n, **41.104 ikusle** izan zituen Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astearen XXII. Edizioak, eta **23.409**, berriz, **Giza Eskubideen Zinemaldiak**, non **Kim Longinotto** britainiar dokumentalgileak jaso baitzuen Zinemaldiko sari nagusia.

Lehen aldiz, LABOen azken edizioa (Clermont-Ferrand-eko film laburrak, Tabakalerarekin programatzen ditugu) [Antzoki Zaharrear](#) egin zen. Beste berrikuntza bat: Euskadiko Filmategiarekin sinatutako hitzarmenak **Alex de la Iglesia**ri eskainitako atzera begirakoa antolatzea ekarri zuen. Bestalde, 2011n Donostia Kultura [Filmazpit programa](#) hasi zen kudeatzen Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin: euskaraz azpibatutako filmen katalogo bat, kultur zirkuituetan zabaltzekoa.

MUSIKA

Musikari dagokionez, Donostia Kulturak **158 kontzertu** antolatu zituen guztira. Partaidetza aldetik, % 26,3 hazi zen, **71.367 entzule**, batez ere **Classic** eta **San Miguel Donostikluba** programak sendotzeari esker. Izenen ugariak erakusten du entzundako musikaren askotarikoa; **Ken Zazpi**, **Deer Ticks**, **El Guincho**, **Ainhoa Arteta**, **The Divine Comedy**, **Ivo Pogorelich**, **El sueño de Morfeo**, **Los secretos**, **Ruper Ordorika**, **Jay Jay Johanson**...

[Heineken Jazzaldiari](#) dagokionez, 46. edizioa egin zen uztailean, eta **75 kontzertu** izan ziren; **115.595 ikus-entzule** erakarri zituzten, hau da, 1.541 herritar batez beste. Euriak zenbait kontzertu bertan behera uztera behartu zuen, baina hala ere aurreko

urteetako kopuruak gainditu ziren. San Telmo Museoa ere sartu zen Heineken Jazzaldian, lehen aldiz, eta **Toots Thielemens** belgikar musikariak jaso zuen Donostia Jazzaldia saria.

73.544 bazkidekin (Hau baita gaur egungo Donostia Kultura txarteldun kopurua), urtez-urteko igoera mantentzen da, bai donostiarren artean bai bisitarien artean Donostiako Udalak eskaintzen duen Kultura eta jai-ekarpena baliatuz.

DONOSTIA KULTURA BAZKIDEAK

Donostiarrek	58.950	80%
Donostiarrek ez	14.594	20%
GUZTIRA	73.544	

